



udalsarea
2030

udalerrri jasagarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles

PLAN ESTRATEGIKOA

2026



© **Udalsarea 2030, udalerrri jasangarrien euskal sarea**

Editatzailea: Ihobe, Ingumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, 2023
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Eusko Jaurlaritzza

www.udalsarea2030.eus

Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua

48011 Bilbo

Tel: 94 423 07 43

udalsarea2030@ihobe.eus

Edukia: Dokumentu hau ADOS Sostenibilidad y Clima, SLrekin elkarlanean prestatu da.



Índice

Aurkezpena	2
20 Urtez sarean lanean. Lorpen aipagarriak	3
Abiapuntuko egoera plana prestatzeko	10
Gaur egungo testuingurua.....	10
Plan Estrategikoa prestatzeko prozesua	13
AMIA analisisa.....	14
Sarearen gobernantza	15
Udalsarea 2030en 2025ko Plan Estrategikoa	18
Misioa, ikuspegia eta printzipioak	18
2026erako helburu estrategikoak eta xedeak	20
Helburu estrategikoak zabaltzea: jarduketa eta ekintza ildoak.....	21
Planaren ekintzak eta GJHak	26
Zerbitzu zorroa	28
Plan Estrategikoaren jarraipena	30



Aurkezpena

Udalerri jasangarrien euskal sarearen, Udalsarea 2030en, xedea tokiko jasangarritasuna sustatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) **administrazio publikoko mailen arteko koordinazioa sustatzea** dira.

Gaur egungo krisi klimatikoaren eta pandemia osteko testuinguru geopolitikoak inoiz baino gehiago eskatzen du eskala administratibo guztiek konpromisoa irmoa izatea garapen jasangarriarekin, **udalerrri inklusiboagoak, erresilienteagoak eta osasungarriagoak, eta pertsonentzat bizitza kalitate gehiago dutenak** eraikitzeko.

Testuinguru honetan, Agenda 2030 eta Parisko Ituna natura globalaren eredutzat hartuta, eta Europako itun berdea tokiko ekintzara iristeko aukeratzat hartuta, funtsezkoa da tokiko eskalatik premiazko gaiak lokalizatzea eta horiei heltzea. Besteak beste, gai horiek trantsizio energetikoa, neutraltasuna eta erresilientzia klimatikoa, lurzoruaren babesa, ekonomia zirkularra sustatzea eta pertsonen osasuna dira.

Udalerrien papera ezinbestekoa da zeharkakotasuna eta herritarren ahalduntzea bermatzen duten politikak eta egiturak eratzeko, **garapen jasangarrian aurrera egin dadin**.

EAE osatzen duten udalak eta eskualdeko erakundeak herritarrengandik gertu dauden erakundeak dira, eta esperientzia handia dute goraka ari diren arloetan politikak planifikatzen eta kudeatzen. Baina eguneroko udal errealitatea dela eta, bereziki tamaina txikikoak direnen eta baliabide gutxiago dituztenen kasuan, premiazkoa eta egokia da sarean lan egitea.

EAEn tokiko garapen jasangarriko politikek aurrera egiteko eta sendotzeko funtsezko gakoetako bat izan da, Udalsarea 2030 sareak jasangarritasunarekiko konpromisoa duten udalerriei eskaintzen dien **kohesioa eta lan kolaboratiboa**.

2022an, Udalsarea 2030ek 20 urte beteko ditu. Bi hamarkada hauetan nabarmentzekoa da gure udalerrietan eta eskualdeetan jasangarritasunaren eta gobernantzaaren arloetan lortu den hobekuntza.

Udalsarea 2030 lankidetzeta hitzarmen baten bidez egituratzen da. Hitzarmen horri euskal administrazioko hainbat maila atxikitzen zaizkio, eta bertan zehazten dira haiei dagozkien eginkizunak eta ardurak. Sarearen aritzeko modua, bere idazkaritza teknikoak, Ihobe sozietate publikoak, koordinatzen duena, plan estrategikoek arautzen dute. Plan horiek era parte hartzailean prestatzen dira beti, eta horien helburua da sarearen jarduketa **udalerriek eta eskualdeek** une bakoitzean aurre egin behar dieten erronketara egokitzea.

Testuinguru honetan, sarearen 20. urteurrena izango duena nagusi, EAEn Agenda 2030 zabaldua eta hurrengo urteetako tokiko politiken noranzkoa ezarriko duten erkidegoko ingurumenaren arloko hainbat plan, programa eta arau onetsita, 2026erako plan estrategikoa jaio da, jarraian aurkeztuko dena.



PLAN ESTRATEGIKOA
2026



Udalerri jasangarrien euskal sarea, hasieran Udalsarea 21, 2002ko abenduan eratu zen 16 udalerrirekin. Une hartan, tokiko garapen jasangarriarekiko konpromisoa Tokiko Agenda 21eko planen bidez hartu zuten udalerri horiek.

Eratu zenetik gaur egun arte, 20 urte pasatu dira. Urte horietan guztietan, sareak bide partekatu bat egin du eta bide horretako lorpen ugari nabarmendu daitezke.



20 urtez sarean lanean


2000-2005

**LEHENENGO TOKIKO AGENDA 21AK
ETA SAREAREN HASTAPENAK**

2000. urtean, EAEn, lehenengo Tokiko Agenda 21ak hasi ziren zehazten Udaltalde 21 izeneko formula baten bidez. Hala, hurbil zeuden udalerriek taldean lan egin zezaketen beren Tokiko Agenda 21ak zehazteko prozesua batera egiteko, eskualdeko erakunde biltzaileen parte hartzearekin eta koordinazioarekin.

Taldean lan egiteko formula honek, gehienbat eskualdeko ikuspegia zuena, modu kolaboratiboan lan egiteko era ezarri zuen, eta sinergiak eta lan partekatua bilatzeko oinarriak sortu zituen, gero sarearen dinamikara pasatuko

zirenak. Sarea 2002an sortu zen formalki 16 udalerrri aitzindariak hala eskatuta.

Gaur egun, taldean lan egiteko formulak sarearen identitate ezaugarria dira, eta ekintza planen bidez tokiko jasangarritasunarekiko konpromisoa duten udalerrien kopuruak EAEko herritar gehienak hartzen ditu.

Prozesuek, halaber, era nabarian aktibatu zuten herritarren parte hartzea Tokiko Agenda 21en foroen bidez. Ondorengo urteetan, oihartzun eta eragin handia izan zuten foro horiek.



**Lorpen
aipagarriak**



EAEko 240 udalerrik

**tokiko jasangarritasunaren ekintza plana eduki dute;
EAEko biztanleriaren % 98 hartzen dute.**

190 udalerrik

Udaltalde 21en
esparruan
landu dute.

28 Udaltalde

21 aktibatu eta
dinamizatu dira
20 urte hauetan

31.234 pertsonak

Tokiko Agenda 21en
udal foroetan parte hartu dute
2000-2010 aldian.




2005-2010

SAREA SENDOTZEA ETA TOKIKO BERRIKUNTZAREN ALDE EGITEA

2005. eta 2010. urteen artean, udalerrri ugari sarean sartu ziren eta, guztira, 188 kide izan ziren 2010ean. Tamaina, profil eta ibilbide desberdineko udalerriek tokiko jasangarritasunaren prozesuetan batera lan egin dute eta esperientziak zein ezagutzak partekatu dituzte. Ondorioz, aldi horren ezaugarria da sarearen zerbitzuen zorroa zabaltzea eta dibertsifikatzea, kide berrien eta transformazio jasangarrian ibilbide eta

garapen handiagoa duten udalerrien beharrei erantzuteko. Eskari guztiei erantzutearen ondorioz, zerbitzuen zorro askotarikoa eta egituratua sortu da. Bertan, besteak beste, hauek nabarmentzen dira: lantaldeak, gida metodologikoak, jardunbide egokien katalogoak, jardunaldi teknikoak, berrikuntzari laguntzea eta zerbitzu informatiboak.



Lorpen aipagarriak

50 jardunaldi

tekniko baino gehiago egin dira



35 lantalde

tokiko erakundeek protagonizatuak, lan arlo oso heterogeneoetan, adibidez: klimaren aldeko ekintza, erosketa publiko berdea, biodibertsitatea, airearen kalitatea, ura, lurzoruak, mugikortasuna, hondakinak, osasuna, generoaren ikuspuntua, jasangarritasunaren alderdi soziala, etab.

Baliabide komunei esker eta udalerriekin batera sortutako metodologiei esker eta sarean lan egiteari esker, beste konpromiso, irizpide eta lan arlo batzuk era eraginkorrean sartu dira, uneko nazioarteko jarraibideekin bat eginda. Horren erakusgarri da, Aalborgeko

konpromisoak –Hiri eta herri jasangarriei buruzko Europako IV. Konferentziatik lortutakoak, Aalborg+10 (2004)- tokiko jasangarritasun politikan txertatu izana eta EAEko udalerriek 10 konpromiso horiei egindako ekarpenak aztertzen dituen ondorengo analisia.



PLAN ESTRATEGIKOA 2026

Argitalpen aipagarriak



Aalborgeko konpromisoak. EAEko udalerriek Europako jasangarritasunari egindako ekarpena (2005).



Eusko udalerrien ekarpena Aalborgeko konpromisoari (2015).

Etapa honetan, tokiko berrikuntzaren alde egin zen irmoki, goraka ari ziren arloei bide emateko; horien artean nabarmentzekoa da klima aldaketa, berotegi efektuko gasak (BEG) murrizteko Kyotoko protokoloa indarrean jartzearekin bat. Horrela, udalerrien sarean artean

lehenetarikoa izan zen klima aldaketaren politikak tokiko eskalan sartzen. Gaur egun ere arlo horretan lan egiten jarraitzen da, ikuspegi integralarekin, murrizketa eta egokitzapena kontuan hartuta, eta baita gainerako udal arloekin duten erlazioa ere.



Lorpen aipagarriak



EAEko **25** udalerrik


Alkateen klima eta energia itunari atxikita daude

EAEko **55** udalerrik

Klima eta energia (murriztea eta egokitzea) lantzen duten planak prestatu dituzte, badituzte edo horretan ari dira lanean.

Ehundik gora udalerrik

kalkulatu dute beraien udalerriko **BEG emisioen inbentarioa eta karbono urratsa 2016tik.**



Tokiko berrikuntzari laguntzeko programaren

12 edizio

100 proiektu

berritzaile baino gehiago gauzatu dira

7,5 M euro mobilizatu dira

3,3 M euroko

zuzeneko finantzazioa, programak emanda

Tokiko

56 erakunde onuradun




EBALUAZIOAN ETA GARDENTASUNEAN OINARRITUTAKO GOBERNANTZA EREDU BATEN ALDE EGITEA

Sarearen ibilbidearen lehen 10 urteak beteta eta bertako kideak 200 udalerritik gora zirenean, sareak garapen jasangarriaren tokiko politiken gobernantza eredu bat sustatu zuen, departamentuarterko zeharkakotasunean, herritarren parte hartzean eta kontu ematean oinarrituta. Bere zerbitzu eta metodologia partekatuen bidez, sareak tokiko politika publikoen ebaluazioa eta jarraipena sustatu eta erraztu du, bi elementuren bidez: tokiko ekintza planen egikaritze mailaren ebaluazioa eta garapen jasangarriaren udal adierazleen

kalkulua. Horretarako, EAEko udalerriek e-mugi izeneko web aplikazio bat dute, tokiko ekintza plana kudeatu eta ebaluatu ahal izateko, baita garapen jasangarriaren udal adierazleak kalkulatzeko eta udalerriko emaitzen txostenak sortzeko ere. Ihebek, e-mugi plataformaren kudeatzailea eta EAEko tokiko garapen jasangarriaren behatokia denez, tokiko erakunde bakoitzak sartutako informazio guztia eskuratzen du. Horrela, EAEko ikuspegi globala eta tokiko jasangarritasunaren informazio estrategikoa lortzen ditu.



Lorpen aipagarriak



59 Egindako Eskola Agenda 2030en foroak 2020-2021 ikasturtean

Tokiko jasangarritasunaren politikak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko

10 programa

jasangarritasun planaren ebaluazioan eta adierazleen kalkuluan oinarrituta

e-mugi aplikazioaren

95 erakunde erabilizaile

beren planen **jarraipena** egiteko eta garapen jasangarriaren udal adierazleak kalkulatzeko

Hainbat datu garrantzitsu sortu dira, egindako ekintzei buruzkoak eta udal adierazleei buruzkoak

3.122 ekintza ebaluatu dira

eta 5.800 adierazle azken programan, **EAEko tokiko jasangarritasun garapenaren behatokian biltegitatu dira.**



PLAN ESTRATEGIKOA 2026

Txosten aipagarriak

2007 eta 2014 bitarte argitaratutako
EAEko tokiko jasangarritasunari buruzko

5 txosten

sarean txertatutako datuen ustiapenetik eta
azterketatik lortutakoak.



Epealdi honetan, gainera, Tokiko Agenda 21 izaten lehenengoak izan ziren udalerriek beraien ekintza planak berri behar zituzten. Lehenengo planetatik metatutako esperientziari eta ikasitako lezioei esker, tokiko jasangarritasun planak prestatzeko metodologia berrius daiteke, plan integralagoen alde eginez. Plan horiek beraien irismena zabaltzen dute ekintza sozialak eta ekonomikoak kontsideratuz, lehen belaunaldiko planen ingurumen joera gaituz, beste politika sektorialekin osatu zena (hondakinak,

mugikortasuna, erosketa publiko berdea, etab.).

Gainera, ibilbide bikain batekin, EAE jasangarritasunean eredu bihurtzen eta nazioarteko topaketen eta ekimenen buru izaten hasi zen. Zehazki, Euskal Deklarazioa, Europako hirientzako eta herrientzako ibilbide orri berriaren sustatzailea izan zen EAE; horrela, udalerrri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortu ziren Europa habitagarri eta inklusibo baterako.



Lorpen aipagarria



EAEK, ICLEIrekin batera, 2016an,
**Herri eta hiri jasangarrien
8. konferentzia**

hartu eta antolatu zuen. Bertan, sortu zen
Euskal deklarazioa
zeinari Europa osoko 955 tokiko erakunde
atxiki zitzaizkion.

**Ekintza transformatzailearen
Europako sarien**

5 edizio
egin dira

Icleirekin eta Aalborg hiriarekin
lankidetzan.



PLAN ESTRATEGIKOA
2026



Azken etapa honetan, besteak beste, pandemiak sortutako krisia izan da nagusi, eta udalen kudeaketan eragin nabarmen izan du. Sareak lan egiteko modu berriak sortu ditu eta udalerrien eritmorra egokitu da, eta ildo gogoetatsuagoetan aurrera egin da.

Epealdi honetan, hain justu, 191 udalerrikide dituela, sarea egokitu egin da, hala


sarean nola baliabide metodologikoetan, Nazio Batuen Agenda 2030era. Horretarako, udalerrientzako erreferentzia gida bat eskaini du eta baliabideak zein metodologiak egokitu ditu tokiko jasangarritasunaren politikak aztertzeko, Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspuntutik.

Argitalpen aipagarriak



TOKIKO 2030 AGENDA
GIDA

argitaratu zen. Gida horrek tokiko mailan Agenda 2030 bereganatzen laguntzen du. Gida horrek 10.000 deskarga inguru izan ditu eta ingeleseko bertsioaren 100 deskargatik gora.



Jasangarritasun
Garapenaren Helburuei
EAEko udalerriek egiten
dieten ekarpenaren

bi txosten, 2018an eta 2021ean argitaratu zirenak, hurrenez hurren



Azken etapa honetan, sareak bere izena aldatu zuen Agenda 2030 ezagutarazteko:





PLAN ESTRATEGIKOA
2026



ABIAPUNTUKO
EGOERA PLANA
PRESTATZEKO

Gaur egungo testuingurua

2026erako plan estrategikoa hainbat elementuk ezarritako testuinguruan zehaztu da. Elementu horien eraginez, bosgarren plan estrategikoa etapa garrantzitsu bat ixten du, Agenda 21 eta Agenda 2030 arteko trantsizio etapatzat jo dezakeguna. Agenda horiek tokiko jasangarritasunaren gobernantzarako ereduak dira. Elementu horiek, zalantzarik gabe, egindako gogoeta eta 2022-2026 aldirako planteatzen diren erronkak ezarri dituzte.



1GO ERRONKA **AGENDA 2030EN HEDAPENA EAEN**

Agenda 2030, EAEn, administrazio publikoaren hiru mailetan lantzen ari da, baita sektore ekonomikoetan eta sozialetan ere. Hori kontuan hartu beharreko desberdintasun azpimarragarria da, zeren Agenda 21, bereziki, tokiko erakundeentzako tresna bat zen eta, Agenda 2030ean, EAeko udalerriek gainerako euskal administrazioekin eta beste eragile


batzuekin partekatzen den ibilbide orri bat dute. Horrela, lankidetzak eta aliantzak errazten dituen hizkuntza komun bat lortzen da.

Udalsarea 2030 Eusko Jaurlaritzaren Trantsizio Sozialerako Idazkaritza Nagusiak eta Agenda 2030ek sustatutako Agente Anitzeko Foroaren parte da.

2. ERRONKA **BESTE LANKIDETZA AKORDIO BAT SARERAKO**

2022an, Udalsarea 2030ek sarearen akordio esparrua berritu du, zeinak tokiko ekintza jasangarria eta EAEn tokiko Agenda 2030 sustatzeko lankidetzak arautzen duen. Udalerriak eta eskualdeko erakundeak protagonistak diren akordio honetan, hauek guztiek parte hartzen dute: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Lehendakaritza,

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren bidez; Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; EVE-Energiaren Euskal Erakundea; URA, Uraren Euskal Agentzia; HAZI, landa, itsasertz eta elikagaien sustapenerako fundazioa, Euskadiko Udalen Elkarteak - EUDEL, eta lhoibe sozietate publikoa, sarearen idazkaritza teknikoak dena.





3. ERRONKA

TOKIKO ARLOAN ERAGINA DUTEN PLANAK ETA POLITIKOAK

2021 eta 2022 bitartean, ingurumen arloan tokiko ekintza markatuko duten hainbat plan eta programa prestatu eta argitaratu dira. Plan estrategiko hau

esparru on bat da, plan eta programa hauek tokiko mailan ezar daitezzen koordinatzeko, lehenesteko eta sustatzeko.

Planak, programak eta estrategiak



2021-2024 ENERGIA TRANTSIZIOA ETA KLIMA ALDAKETAREN PLANA



2030ERAKO EUSKADIKO BIODIBERTSITATE-ESTRATEGIA



EKONOMIA ZIRKULARRAREN ETA BIOEKONOMIAREN 2024 PLANA



EUSKADIKO EKONOMIA ZIRKULARRERAKO ESTRATEGIA 2030



EUSKADIKO HONDAKINAK PREBENITU ETA KUDEATZEKO 2030KO PLANA



KLIMA ALDAKETAREN EUSKADIKO ESTRATEGIA-KLIMA 2050



EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2030



2030 EAeko LURZORUA BABESTEKO ESTRATEGIA



2030ERAKO EUSKADIKO JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA ESTRATEGIA



Araudia

10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

9/2021 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natur ondarea kontserbatzeari buruzkoa.

4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.

Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko legearen aurreproiektua.




Plan estrategikoa prestatzeko prozesua

2026erako plan estrategikoa prestatzeko prozesuak eginkizun hauek konbinatu ditu: dokumentazioa aztertzea, kontrastea parte hartu duten eragileekin eta debate irekia sareko kideekin; hala, udaleko eta eskualdeko erakundeei protagonismo berezia eman zaie.

2026erako Plan Estrategikoa egiteko prozesuak bat egiten du EAEn tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 Agenda bultzatzeko akordio berria

definitzeko eta Udalsarea 2030 berritzeko hausnarketa prozesuarekin. Hori dela eta, hainbat topaketa, elkarrizketa eta inkesta egin dira, eta, horiei esker, ekarpen ugari bildu dira planaren edukia osatzeko.

Horrez gain, identifikatutako eskariak eta interesak oinarri izango dira bi urtez behingo bi kudeaketa planetako lehena diseinatzeko eta definitzeko, Plan Estrategiko honen 2022-2026 indarraldian.





AMIA analisia

Jarraian, modu sintetikoan aurkezten da AMIA matrize moduan egituratutako diagnostikoa, azken hilabeteetan bildutako informazioa hainbat bidetatik tratatzearen emaitza dena:





Udalsarea 2030 sarearen gobernantzaren eredu sendotu batean 20 urteko ibilbidea egin ondoren, eta 2026erako plan estrategiko honekin hasten den aldiarekin bat eginez, sareak 2022ko apirilean bere egiten ditu *EAEn tokiko ekintza jasangarria sustatzeko akordioa eta tokiko Agenda 2030. Udallerri jasangarrien euskal sarea, Udalsarea 2030, berritu da, 2026ra arte alderdien lankidetzarako eta bere funtzioen esparrua ezarri duena.*



Udalsarean 2030 udalek eta eskualdeko erakundeek (mankomunitateak, garapen agentziak, kuadrillak, etab.) osatzen dute, hau da, sarearen funtsezko protagonistek. Baina administrazioaren maila guztietan tokiko ekintza koordinatu bat bermatzeko, hauek guztiek ere sarean parte hartzen dute: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Lehendakaritza, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren bidez; Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; EVE-Energiaren Euskal Erakundea; URA, Uraren Euskal Agentzia; HAZI, Euskadiko Udalen Elkarte - EUDEL eta lhobe sozietate publikoa. Udalsarea 2030ak **jarrera irekia** du tokiko garapen jasangarriarekin konpromisoa duten **beste erakunde publiko batzuk ere bertan hartzeko**.

Hasi den epealdi honen berrikuntza nagusietako bat Agenda 2030ak ezartzen du. Nazio Batuek 2015ean sustatuta, Agenda 21etik (tokiko politiketara bideratutako tresna) bestelako eran, Agenda 2030ek aukera ematen dute administrazioaren edozein mailatan hura ezartzeko, baita tokiko mailan ere, eta sektore sozialeko zein sektore pribatuko erakundeetan.

Azken 4 urteetan, sarea egokitu eta Agenda 21etik Agenda 2030erako trantsizioa egin den bitartean, pauso garrantzitsuak eman dira maila anitzeko eta agente anitzeko Agenda 2030 hedatzen aurrera egiteko.

2018an, Eusko Jaurlaritzak **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** onetsi

zuen Gobernu Kontseiluan, eta hortik abiatuta, hainbat ekimen zabaldu ziren EAEko agente sozialak, ekonomikoak eta administratiboak parte hartzeko. 2021ean, **Agenda 2030en Lehetasunen Euskal Programa** onetsi zen Gobernu Kontseiluan, Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegi transformatzaileari lotutako kontratu sozialaren kultura sustatzeko eta, urte horretan, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Agente Anitzeko Foroa sortu zen EAEn. Foro hau EAEko politika publikoetan Agenda 2030en harmonizazioari eta garapenari ekarpena egiteko, elkarlanerako eta aholkularitzarako organoa da.

Udalsarea 2030 lankidetzak akordio berriak kontuan hartzen du testuinguru berri hau. Bertan, Agenda 2030ek **politiken koordinazioa eta osagarritasuna areagotzen dute**, Garapen Jasangarriaren Helburuek ezarritako ibilbide orri bat jarraituta.

EAEko tokiko gobernantza eredu berri honi esker aukera izango da: parte hartze politikoa eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa sustatzeko, sailen arteko zeharkakotasuna eta lanerako plan estrategikoagoa indartzeko, partaidetza sozialerako hizkuntza berri bat sortzeko, komunikazio efektiboagoa lortzeko eta finantzazio aukerak handitzeko. Gainera, EAEko tokiko administrazioaren ahalegin kolektiboak agerian jarri du nazioarteko erreferente gisa jasangarritasun globalari eta EAEko **posizionamenduari egin dion ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuen lokalizazio arloan**.

Horregatik guztiagatik, organo hauek ezarri dira sarearen funtzionamendua eta koordinazioa bermatzeko:



PLAN ESTRATEGIKOA
2026

ORGANOA	KIDEA(K)	EGINKIZUN NAGUSIAK
LEHENDAKARITZA	<ul style="list-style-type: none">Ihobe, Ingumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren lehendakaria	<ul style="list-style-type: none">Sarearen buru izatea plan estrategikoak eta kudeaketa planak onetsiz.Sarearekiko atxikimenduak baliozkotzea.Sarearen idazkaritza teknikoari baliabideak ematea.
BATZORDE TEKNIKOA	<ul style="list-style-type: none">Sareari atxikitako erakunde guztien teknikariak	<ul style="list-style-type: none">Udal profilen eta kideen arteko komunikazioa sustatzea eta esperientzien trukea bultzatzea.Lantalde zehatzak sortzea sarearen material eta baliabide komunak garatzeko.Sarearen plan estrategikoen eta kudeaketa planen diseinuan parte hartzea.
KOORDINAZIO BATZORDEA ETA TOKIKO EKINTZA SUSTATZEA	<ul style="list-style-type: none">Udalaz gaindiko euskal sektore publikoko erakundeetako ordezkariak	<ul style="list-style-type: none">Laguntza proiektuei, ekimenei eta programei buruzko informazioa partekatzea bere eskumeneko tokiko jasangarritasunaren arloan.Sustapen politiken koordinazio ildoak proposatzea alderdi bakoitzaren tokiko ekintzari.Tokiko erakundeei zuzendutako ekimen sektorialen lidergoa zehaztea eta onartzea, sarearen eta tokiko ekintzaren jardueraren urteko plangintza hobetzeko.
IDAZKARITZA TEKNIKOA	<ul style="list-style-type: none">Ihobe, Ingumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	<ul style="list-style-type: none">Sarearen plan estrategikoen eta kudeaketa planen diseinuan parte hartzea, horien ezarpena eta jarraipena koordinatzea.Hainbat organoren eta lantalderen topaketak dinamizatzea eta kudeatzea.Sarea teknikoki ordezteko tokiko ekintza jasangarriarekin erlazionatutako foro profesioaletan eta teknikoetan.Hainbat sarerekin eta erakunderekin aliantzak eta lankidetzak indartzea eta izenpetzea esperientziak trukatzeko.



PLAN ESTRATEGIKOA
2026



Misioa, ikuspegia eta printzipioak

Udalsarea 2030en MISIOA da...

EAEko udalerrriak eta eskualdeak mobilizatzea Garapen Jasangarriaren Helburuak eta Agenda 2030 erdiesteko, tokiko ekintza transformatzailearen bidez eta tokiko politiken eta udalez gaindiko politikak bat eginez eta horien koherentziaren bidez, herritarren osasunari eta ongizateari ekarpena eginez.



PLAN ESTRATEGIKOA
2026

...eta **IKUSPEGIA 2026era begira da**

Udalsarea 2030 EAeko udalerrientzat eta erakundeentzat eredu da, beste agente batzuekin lankidetzan dituen zerbitzu aurreratuengatik eta berritzaileengatik, eta Garapen Jasangarriaren Helburuei egiten dien ekarpenarengatik, bereziki neutraltasunaren eta erresilientzia klimatikoaren, lurzoruaren babesaren eta ekonomia zirkularraren sustapenaren bidean. Gainera, sona ona du estatuan eta Europan, martxan daramatzan 20 urte baino gehiagotan egin duen ibilbidearengatik.

PRINTZIPIO hauek izanik bere identitatearen ezaugarriak

Garapen jasangarriaren ikuspegi integrala eta estrategikoa, saretik sustatu daitezkeen prozesuei aplikatu beharreko irizpide gisa.

Efizientzia

izatea sarearen ezaugarria, martxan jarritako ekimenek bere kideetan duen eragin biderkatzailearengatik.

Abangoardia,

sareak BERRIKUNTZAren alde egiten duelako eta udalerrietan goraka ari diren erronkei AURREA HARTZEN dielako

Ezagutza sarean lan egiteko kulturaren eta ekintzaren bideratutako zerbitzuetan

oinarrituta sortu dena, EAEn eta EAetik kanpo PARTEKATZEN dena, gainera.

Giza sarea sarearen atzean, denboran zehar duen egonkortasunean oinarrituta,










informazio interesgarriko eta esperientzien trukerako sarbidea errazten duena.

2026rako helburu estrategikoak eta xedek

Planteamendu estrategiko honekin, Udalsarea 2030ek planteatzen ditu Helburu estrategiko hauek:

1.	Tokiko Agenda 2030 sustatzea eta Udalsarea 2030 Agenda 2030en EAren ekosisteman kokatzea	2.	Tokiko ekintza jasangarria sustatzea	3.	Tokiko ekintza jasangarriaren aliantzak indartzea eta horiei ikusgarritasuna ematea
-----------	--	-----------	--------------------------------------	-----------	---

Eta xede hauek 2023rako eta 2026rako

	2022 Eraitza	2024rako xedea	2026rako xedea	Helburu estrategikoa
 1. PARTE HARTZEA Sareko erakunde kideak (tokikoak, eskualdekoak, udalaz gaindikoak)	<ul style="list-style-type: none"> 198 udalerrri / %79a udalerrri guztizkoaren gainean / %94a biztanleria guztizkoaren gainean 21 eskualde 9 udalaz gaindiko erakunde 	<ul style="list-style-type: none"> 214 udalerrri / %85a udalerrri guztizkoaren gainean 	239 udalerrri / %95a udalerrri guztizkoaren gainean	1.HE
 2. GOGOBEETZEA Gogobetetze maila Udalsarea 2030ekin	8,05	8,00	8,00	1.HE
 3. ERAGINA PLANETAN, POLITIKETAN ETA ARAUDIAN Udalsarea 2030ek kontraste plataforma gisa parte hartu duen planen, politiken eta araudien kopurua	2	4	6	1.HE
 4. TOKIKO AGENDA 2030 Tokiko Agenda 2030 indarrean duten edo prestatzen ari diren udalerrri eta eskualde kopurua (+ehunekoa guztizkoaren gain, +biztanleriaren% guztizkoaren gain)	<ul style="list-style-type: none"> 61 udalerrri / %31a udalerrri guztizkoaren gainean / %37a biztanleria guztizkoaren gainean 3 eskualde 	<ul style="list-style-type: none"> 101 udalerrri / %40a udalerrri guztizkoaren gainean 	<ul style="list-style-type: none"> 126 udalerrri / %50a udalerrri guztizkoaren gainean 	1.HE
 5. PLANGINTZA KLIMAN ETA ENERGIAN Klimaren eta Energiaren planak indarrean dituzten edo prestatzen ari diren udalerrri eta eskualde kopurua (+ehunekoa guztizkoaren gain, +biztanleriaren% guztizkoaren gain)	<ul style="list-style-type: none"> 58 udalerrri / %23a udalerrri guztizkoaren gainean / %58a biztanleria guztizkoaren gainean 2 eskualde 	<ul style="list-style-type: none"> 60 udalerrri / %24a udalerrri guztizkoaren gainean 	<ul style="list-style-type: none"> 61 udalerrri / %24a udalerrri guztizkoaren gainean 	2.HE
 6. EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA EKPB programari atxikitako udalerrriak eta eskualdeak	<ul style="list-style-type: none"> 6 udalerrri / %2a udalerrri guztizkoaren gainean 2 eskualde 	<ul style="list-style-type: none"> 30 udalerrri / %12a udalerrri guztizkoaren gainean 6 eskualde 	<ul style="list-style-type: none"> 50 udalerrri / %20a udalerrri guztizkoaren gainean 10 eskualde 	2.HE
 7. ALIANTZAK Kolaborazio aktibo kopurua beste erakunde batzuekin EAEn eta EAetik kanpo	8	10	12	3.HE
 8. TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA Tokiko eta udalaz gaindi identifikatutako, zabaldutako edo argitaratutako jardunbide egokien/ekintzen kopurua	<ul style="list-style-type: none"> 74 tokiko ekintza web orrialdean 	<ul style="list-style-type: none"> 86 tokiko ekintza web orrialdean 	<ul style="list-style-type: none"> 106 tokiko ekintza web orrialdean 	3.HE
 9. PROIEKTU BERRITZAILAK Udalerrriak eta eskualdeak proiektu berritzailetan	15	30	45	2.HE



Helburu estrategikoak zabaltzea: jarduketa eta ekintza ildoak

Udalsarea 2030en 2026erako plan estrategikoa hiru mailatan egituratzen da eta 3 helburu estrategikok, 8 jarduketa ildok eta 27 ekintzek osatzen dute.

3
helburu
estrategiko

8
jarduketa
ildo

27
ekintza

Ekintzak planaren elementu operatiboenak dira eta maila horretan zehaztu dira egikaritze erantzukizuna, lehenetasuna eta egutegia, besteak beste. Gainera, ekintza bakoitzari esleitzen zaio

Garapen Jasangarriaren zein Helbururi egiten dion/dien ekarpena.

Jarraian, erantzukizuna eta lehenetasuna esleitzeko irakurketa gakoak ikus daitezke:

ERANTZUKIZUNA

IT	Udalsarea 2030en idazkaritza teknikoa (lhobe)
IT	Udalsarea 2030en koordinazio batzordea (udalez gaindiko erakundeak)
Udalak.	Udalsarea 2030en udal kideak
EE	Udalsarea 2030en eskualde erakundeak
*	Erakunde erantzule nagusia adierazten du.

Argibideak: : Batzuetan, erantzukizun nagusia erakunde batek baino gehiagok partekatzen dute: (IT-EE)* / (IT-EE-Udalak)* /

(IT-lhobe)* erreferentziak esan nahi du erantzukizun nagusia Udalsarea 2030en idazkaritza teknikoak eta lloberen ezagutza arlo tematikoak partekatzen dutela



HELBURU ESTRATEGIKOA	1	Tokiko Agenda 2030 sustatzea eta Udalsarea 2030 Agenda 2030en EA Eren ekosisteman kokatzea
---------------------------------	----------	--

1.1 Kide guztien parte hartze handiagoa sustatzea sarean

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
1.1.1 GJHak lortzea bultzatzen duen sare irekiagoa eta integratzaileagoa sustatzea, agente kopuru handiagoak parte hartuta	**	IT-EE* Udalak	X	X	X	X	17
1.1.2 Sareko kideek gehiago parte har dezatela sustatzea, udaletako hainbat arlotako teknikariek parte har dezatela sustatuz, Agenda 2030 onartzeak esan nahi duen zeharkako ikuspegia txertatzeko	***	IT-EE* EE Udalak		X	X	X	17
1.1.3 Indartzea eskualdeko erakundeen gaitasun eragilea udalerrri gehiagotara iristeko eta sektore pribatura gerturatzeko	**	IT-EE*	X	X	X	X	11
1.1.4 Esperientzien trukea bultzatzea tokiko erakundeen artean eta ikusgarritasuna ematea	***	IT-EE-Udalak*	X	X	X	X	17

1.2 Udalerriei eta eskualdeei laguntzea haien tokiko Agenda 2030 ezartzen eta jarraipena egiten

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
1.2.1 Tokiko erakundeen premiei erantzutea tokiko Agenda 2030i ekiteko sarearen zerbitzu zorroaren bidez	***	IT	X	X	X	X	16
1.2.2 Berrikustea eta egokitzea tokiko eta eskualdeko planen kudeaketako eta jarraipeneko tresnak, Agenda 2030en gobernantza testuinguruarekin koherentzian, haiek erabiltzea erraztuz eta haien komunikazioa indartuz	**	IT	X	X	X	X	16



1.3 Kontraste plataforma izatea EAEn politikak diseinatzeko eta horiek zabaltzeko

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
1.3.1 Sustatzea Udalsarea 2030 sarea kontraste plataforma izan dadila udalez gairik planetan	**	IT* EE Udalak	X	X	X	X	16
1.3.2 Aldian-aldian jasotzea tokiko erakundeen premia nagusiak Agenda 2030en helburuetan aurrera egiteko, beharrezko input gisa udalaz gairik politikak eta programak berrikusteko	**	IT* EE Udalak	X	X	X	X	11
1.3.3 Tokiko eskariak administrazio publikoei igortzea, Agenda 2030en tokiko ekintza planak garatzeko eta ezartzeko balizko laguntza ildoak diseina daitezten.	**	IT-EE		X	X	X	11

1.4 Azpimarratzea Agenda 2030en maila anitzeko eta agente anitzeko ikuspegia tokiko politiken zeharkakotasuna indartzeko

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
1.4.1 Era aktiboan parte hartzea, idazkaritza teknikoaren bidez, Trantsizio Sozialaren eta EAEko 2030 Agendaren Agente Anitzeko Foroan.i	**	IT	X	X	X	X	17
1.4.2 Azpimarratzea Agenda 2030ek eta bere maila anitzeko gobernanzak eskaintzen duten aukera berdintasun politika, pobrezia amaitzeko politika eta desparekotasunak murrizteko politika indartzeko, garapenerako lankidetzak ekimenen presentzia handiagoa sustatzeko, baita GJHrekin bat egiten duten tokiko elkarlana eta aliantzak sustatzeko ere.	**	IT-EE* EE	X	X	X	X	1, 5, 10, 17



HELBURU ESTRATEGIKOA	2	Tokiko ekintza jasangarria sustatzea
---------------------------------	----------	---

2.1 Tokiko ekintzak udalez gaindiko politikekin eta arauekin bat egitea, ibilbide sektorialen bidez

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
2.1.1 Tokiko erakundeak mobilizatzea "Klima-Energia" erronkaren aurrean eta 4/2019 jasangarritasun energetikoaren Legea, eta EAEko trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko legea bete ditzaten	***	IT-Ihobe-EVE* EE Udalak	X	X	X	X	7, 13
2.1.2 Sustatzea EAEko 2030eko erosketaren programa eta hortik kontratazio publiko berdearen programa eta hortik sortzen diren konpromisoak betetzea	***	EE-IT-Ihobe* EE Udalak	X	X	X	X	12
2.1.3 Sustatzea tokiko erakundeek ekonomia zirkularrean eta bioekonomian parte hartzea	**	IT-Ihobe* EE Udalak		X	X	X	9
2.1.4 Indartzea lurzorua babesa sarearen jardueran eta tokian-tokiko 2030eko EAEko lurzorua babes estrategiarekin bat eginez	**	I-Ihobe* EE Udalak	X	X	X	X	15
2.1.5 Udalsarea 2030en bidez bideratzea EAEko 2030eko hondakinen prebentzio eta kudeaketa planaren jarduketara zehatzen hedapena	**	IT-Ihobe* Udalak	X	X	X	X	12
2.1.6 Udalsarea 2030en bidez bideratzea osasunari lotutako ingurumen sektore berriekin lotura duten ekimenak, <i>Zero Pollution</i> Europako ekimenaren helburuekin bat eginez	**	IT* EE Udalak URA OSASUN saila		X	X	X	3, 6

2.2 Ekitea tematika berriei eta proiektu berritzaileei, udalerrien etorkizuneko erronkei aurrea hartuz

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko ku- deaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
2.2.1 Azpimarratzea EAEko tokiko garapen jasangarriaren behatokiak duen garrantzia eta denbora errealean ikusteko aukera emango duen bisore bat jartzea behatokiari	**	IT-Ihobe*	X	X	X	X	16
2.2.2 Indartzea udalerrientzako joera eta berrikuntza interesgarriak hautemateko mekanismoak (antena) eta sarean lantzen diren tematikak eguneratuta daudela ziurtatzea	*	IT-Ihobe*		X	X	X	9
2.2.3 Sustatzea baterako proiektu berritzaileen garapena proiektu pilotuen bidez	***	IT-EE* EE Udalak		X	X	X	9
2.2.4 Berrikuntza digitala tokiko Agenda 2030etan sartzeko tresnak garatzea	*	IT* EE			X	X	9



HELBURU ESTRATEGIKOA	3	Tokiko ekintza jasangarriaren aliantzak indartzea eta horiei ikusgarritasuna ematea
---------------------------------	----------	---

3.1 Agentekin eta sareekin irekiera eta elkarlan handiagoa izan dadila sustatzea

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
3.1.1 EAEko agenteekin elkarlan handiagoa izan dadila sustatzea	*	IT* EE Udalak	X	X	X	X	17
3.1.2 EAEtik kanpoko beste sare eta agente batzuekin informazioa eta ezagutza trukatu dadila sustatzea	*	IT* EE Udalak	X	X	X	X	17

3.2 Tokiko ekintza jasangarriaren komunikazioa eta hedapena indartzea

EKINTZA	LEHENTASUNA	ERANTZULEAK	2022-2024 aldiko kudeaketa plana		2025-2026 aldiko kudeaketa plana		GJH nagusia
			2022	2024	2025	2026	
3.2.1 Udalerrien lorpenak eta Udalsarea 2030ek emandako balioa aintzat hartzen dituzten sareko zabalpen ekintzak indartzea	**	IT	X	X	X	X	16
3.2.2 Garapen jasangarriaren aldeko tokiko ekintza aintzatesteko sistema bat definitzea	**	IT		X	X	X	16
3.2.3 Udalerriek herritarren jasangarritasunerako hezkuntzan duten rola indartzea, aliantzen eta beste hezkuntza ekimen batzuekiko koordinazioaren bidez	*	IT-Ihobe*	X	X	X	X	4
3.2.4 Udalerriei eta eskualdeei laguntzea herritarrak garapen jasangarriaren arloan sentibilizatzeko eta ahalduentzeko ekintzetan	***	EE-IT_Ihobe* EE Udalak	X	X	X	X	12



Planaren ekintzak eta GJHak

Ekintzak definitzeko prozesuan, ekintza bakoitzari Garapen Jasangarriko Helburu nagusi bat edo batzuk esleitu zaizkio; horiek aurreko kapituluan aurkeztu dira.

Baina, gainera, ekintza bakoitzaren esparruan garatzea aurreikusten diren eta 2022-2023 Kudeaketa Planean zehazten diren jarduketetan oinarrituta, ekintza bakoitzak beste GJH batzuei ere laguntzen die zeharka.

Hori kontuan izanda, jarraian, planaosatzen duten ekintzen eta ekarpena egiten dieten GJHen ikuspegi bat dago.



PLAN ESTRATEGIKOA
2026



EKINTZAK

GJH bakoitzean laguntzen duten ekintzen kopurua

1.1.1 Sare irekiagoa eta integratzaileagoa sustatzea, eragile gehiagoren parte-hartzearekin GJHak lortzen laguntzeko

1.1.2 Sareko kideen parte-hartze handiagoa sustatzea, hainbat udal-arlotako teknikarien inplikazioa bultzatuz, 2030 Agenda hartzeak dakarren zeharkako ikuspegia txertatzeko

1.1.3 Eskualdeko erakundearen trakzio-ahalmena indartzea, udalerrri gehiagotara iristeko eta sektore pribatura hurbiltzeko

1.1.4 Toki-erakundearen arteko sareko esperientzien trukea sustatzea eta horiei agerikotasuna ematea

1.2.1 Tokiko erakundearen beharrei erantzutea, Tokiko 2030 Agendari ekiteko, sareko zerbitzu-zorroaren bidez

1.2.2 Tokiko eta eskualdeko planen kudeaketa- eta jarraipen-tresnak berrikustea eta egokitzea, 2030 Agendaren gobernantza-testuinguruarekin bat etorri, haien enplegua erraztuz eta haien komunikazioa indartuz

1.3.1 2030 Udalsarea udalaz gaindiko planetan kontraste-plataforma izan dadin sustatzea

1.3.2 Toki-erakundearen behar nagusiak aldizka jasotzea, 2030 Agendetako helburuetan aurrera egiteko, udalaz gaindiko politikak eta programak berrikusteko beharrezko input gisa

1.3.3 Tokiko eskaerak administrazio publikoei helaraztea, 2030 Agendako tokiko ekintza-planak garatzera eta ezartzera bideratutako laguntza ekonomikoko ildo posibleak diseinatuz

1.4.1 Idazkaritza Teknikoaren bitartez, Euskadiko Trantsizio Sozialerako eta Agenda 2030erako Eragile Anitzeko Foroan aktiboki parte hartzea

1.4.2 2030 Agendak eta haren maila anitzeko gobernantzak berdintasun-politikak indartzeko, pobrezia amaitzeko eta desberdintasunak murrizteko eskaintzen duten aukerari balioa ematea, garapenerako lankidetzaren presentzia handiagoa sustatzeko, baita GJHekin bat etorri diren tokiko lankidetzaren eta aliantzaren sustatzeko ere

2.1.1 Toki-erakundeak mugiaraztea "Klima-Energia" eronkaren aurrean eta Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Euskadiko Legea betetzean

2.1.2 Euskadi 2030eko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa sustatzea eta programa horren ondoriozko konpromisoak betetzea

2.1.3 Toki-erakundearen parte-hartzea sustatzea ekonomia zirkularrean eta BioEkonomian

2.1.4 Lurzoruaren babesaren presentzia indartzea Sarearen jardueran eta tokiko esparruan, Euskadi 2030 Lurzorua Babesteko Estrategiarekin bat etorri

2.1.5 Udalsarea 2030en bidez, Euskadi 2030 Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planeko jarduera zehatzen hedapena bideratzea

2.1.6 Udalsarea 2030en bidez, osasunari lotutako ingurumen-bektore berriekin lotutako ekimenak bideratzea, Zero Pollution Europako ekimenaren helburuekin bat etorri

2.2.1 Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokiari balioa ematea eta informazioa denbora errealean ikusteko moduko bisoreaz hornitzea

2.2.2 Udalerrietzat interesgarriak diren joerak eta berrikuntzak atzemateko mekanismoak (antenak) indartzea eta Sarearen barruan jorratzen diren gaiak eguneratuta daudela ziurtatzea

2.2.3 Proiektu pilotuen bidez, proiektu berritzaile bateratuak gara daitezzen sustatzea

2.2.4 Tokiko 2030 Agendetan berrikuntza digitala txertatzea errazteko tresnak garatzea

3.1.1 Euskadiko eragileekin lankidetzaren handiagoa sustatzea

3.1.2 Informazioaren eta ezagutzaren trukea sustatzea Euskaditik kanpoko beste sare eta eragile batzuekin

3.2.1 Sarea hedatzeko ekintzak indartzea, udalerrien lorpenak eta Udalsarea 2030ek emandako balioa aintzatesteko

3.2.2 Garapen jasangarriaren aldeko tokiko ekintza aintzatesteko sistema bat zehaztea

3.2.3 Udalerriek herritarren jasangarritasunerako hezkuntzan duten rola indartzea, aliantzen eta beste hezkuntza-ekimen batzuekiko koordinazioaren bidez

3.2.4 Udalerriek eta eskualdeei laguntzea garapen jasangarriaren arloan herritarrak sentsibilizatzeko eta ahalduntzeko ekintzetan

Oharra: GJH nagusiak Prekin nabarmendu dira



PLAN ESTRATEGIKOA
2026



Agenda 21etik Agenda 2030erako trantsizio prozesuari esker, baita 2026erako plan estrategikoa prestatzeak eskatzen duen gogoeta prozesuari esker ere, erakundeko kideei Udalsarea 2030ek eskaintzen dien zerbitzuen zorroa berrikusi eta egokitu ahal izan da.

**Jarraian, zerbitzuen ikuspegi orokorra eta egituratua ikus daiteke; hala ere, horien ezaugarriei buruzko informazio gehiago Udalsarea 2030en webgunean eskura daiteke:
www.udalsarea2030.eus**



KATEGORIA **ZERBITZUA**



INFORMATIBOAK

Zerbitzu informatiboak hainbat kanalen bidez

1. Webgunea (albisteak, agenda, laguntzen deialdiak,...)
2. Tokiko jasangarritasunaren buletina
3. Tokiko jasangarritasunaren bisorea



GAITASUNEZKOAK

Prestakuntza tokiko jasangarritasunaren arlo zehatzetan udal langileentzat eta bestelako intereseko agenteentzat

4. Jardunaldiak eta lan tailerrak
5. Kontraste saioak plangintzan eta araudian (estrategiak, planak eta legeak)



DIGITALAK

Eskura dauden aplikazio eta tresna digitalak sareko erakundeentzat

6. EAEko garapen jasangarriaren behatokia, tokiko jasangarritasunaren informazio biltegia
7. e-mugi web aplikazioa jasangarritasunaren tokiko plana kudeatzeko eta udal adierazleak kalkulatzeko
8. Udalerrietan eta eskualdeetan BEG emisioen inbentarioak kalkulatzeko tresnak
9. Udalen eta eskualdeko erakundeen karbono aztarna kalkulatzeko tresnak
10. Hirigintzako tokiko ekimenek osasunean duten eragina aztertzeke aplikazioa



AHOLKULARITZA ETA EZAGUTZA

Sareari buruzko aholkularitza orokorra. Ezagutza eta metodologiak garatzea hainbat arlo interesgarritan, berrikuntzako eta frogaketako proiektuetan sortzen dena barne

11. Idazkaritza teknikoaren arreta
12. Kide berriak hartzeke zerbitzua
13. Garapen jasangarriaren tokiko politikak ebaluatu daitezela laguntzea
14. Garapen jasangarriaren udal adierazleak kalkula daitezela laguntzea, BEG barne
15. Lantalde tematikoak
16. Gida eta argitalpen teknikoak



EKINTZA TRANSFORMATZAILEA ETA BERRIKUNTZA

Proiektuak martxan jartzeko zerbitzua, baldin eta horien helburua ekintza transformatzaileak, proiektu zehatzak eta epe laburrean ikusgarriak egitea bada

17. Prospekzio txostenak
18. Berrikuntzarako ekimen eragileei laguntzea
19. Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egin daitezela laguntzea



PROIEKZIOA

Ikaskuntzari lotuta udalek duten konpromisoa eta egindako ahalegina zein lana azpimarratzen dituen zerbitzua. Ezagutaraztea eta proiektzioa

20. Tokiko jasangarritasun ekintza, sareko hainbat baliabidek (webgunea, katalogoa, sareko organoak, lantalde tematikoak) identifikatutako, sailkatutako eta zabalduetako tokiko ekimenak
21. Dibulgazioa, jardunaldi publikoak, web mintegiak
22. Errekonozimendu ekintzak




PLAN ESTRATEGIKOA
2026



**Plan estrategiko hau 2022-2026
epealdirako definitu da, horrek esan
nahi du bi urteko bi planetan
zabalduko dela: 2022-2024
kudeaketa plana eta 2025-2026
kudeaketa plana.**

Urteko jarraipen eredu bat zehaztu da elementu hauetan oinarrituta:



Urteko jarraipen prozesutik lortutako informazioarekin, laburpen bat egingo da. Sarearen organoen bidez, sareko kideekin, batzorde teknikoarekin eta tokiko ekintza koordinatzeko eta sustatzeko batzordearekin partekatuko da laburpen hori.


Kudeaketa plan bakoitzaren bi urteko indarraldia amaitu ostean, memoria bat egingo da, sarearen kanalen bidez sozializatu eta zabalduko dena.

Gainera, 2023-2024 kudeaketa plana amaitu ondoren, lortutako emaitzen azterketa abiapuntua izango da 2025-2026 epealdirako hurrengo plana prestatzeko. Azterketa horrek prozesu parte hartzaile batekin, Udalsarea 2030eko erakunde kideen erronkak eta eskariak jasoko ditu.





2026RAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN JARRAIPEN EREDUA

Urte bakoitzeko
azken hiruhilekoa



2023-2024
epealdia amaitzean







uda sarea 2030

uda erri ja langarrien eus a sarea
red asca de municipios sostenib es

